# ANONIMA



BILBAO FORMARTE

# ANONIMA

BILBAO FORMARTE

## ANONIMA

Arteak, hezkuntzarako ibilgailu bezala, bizitzak planteatzen dizkigun gai guztietan sakontzeko aukera ematen digu. Generoen arteko berdintasunean aurreratzea da gaur egun hezkuntzan lantzen den gaietako bat, eta BILBAO FORMARTEk ere berdintasunean ekiten du. “ANONIMA” erakusketan, gure zenbait artistek emakumearen irudiaren eta honek gizartean duen paperaren inguruan hausnartzeko aukera izan dute.

“ANONIMA”, emakumeen gaitasunak ezkutatzeko dagoen desira islatzen duelako, denbora luzez gizonezkoen zerbitzura bideratutako zereginetara alboratuta izan baikara. “ANONIMA”, gizonezkoak bezain garrantzitsuak garelako. “ANONIMA”, gure lanak eta gizonezkoek egindakoak balio bera dutelako. “ANONIMA”, ikusezinak ez garelako. “ANONIMA”, ez garelako hauskorragoak. “ANONIMA”, errespetatuak eta ez menderatuak izan behar dugulako.

“ANONIMA” ikusteko arrazoi gehiago eman ditzakegu, baina horren ordez, ikusleak eduki aberatsak eta ezberdinak dituen erakusketa honetara gonbidatu nahi ditugu. Bertan, euren obretan etengabe lanean aritu diren hainbat artista aurkezten ditugu. Zenbait obratan, erakusketan elkar eraginez, gai hauetan sakontzeko aukera ematen zaigu: “Ikusezinak”-k ezezagunak izan diren sekulako emakumeen berri emango digu, “Egin planto”-k gizarte zintzoago bat eraikitzen segitzeko nahia erakutsiko digu, eta “Nik ere Frida izan nahi dut”-k erakusketa zoragarri honetako parte izateko eskaintza egingo digu.

Aldez aurretik gure berri izan ez baduzue, zera esan nahi dizuegu: erakusketako artista guztiek ezgaitasun psikiko edo intelektualen bat dute. Harrotasunez azpimarratu behar dugu bertan generoen arteko berdintasunaren inguruan hainbat lezio emateko ikaragarrizko gaitasuna erakutsi dutela. “ANONIMA”-k islatzen duen bezala, haiek ere erabat ezezagunak izan dira denbora luzez; orain arte, alabaina Izen-abizenak dituzte, adina, generoa, desioak eta beharrak... Eta gure gizartearen parte dira, beste guztiok bezala.

Obra guztiak oso ikuspuntu ezberdinetatik daude eginda. Gure erakusketa disfrutatzea espero dugu, baita gure ikasleen gaitasun handiak balioestea ere.

**Ana Urgoiti Guisasola**

## ANONIMA

El Arte, como vehículo de aprendizaje, nos brinda la oportunidad de ahondar en todas las temáticas que se nos plantean en la vida. Avanzar en la igualdad de género es uno de los temas que actualmente se está trabajando en educación y desde el principio docente que rige nuestra escuela, BILBAO FORMARTE, también trabaja en el campo de la igualdad. Con motivo de esta exposición, “ANONIMA”, hemos tenido la oportunidad de que varios/as de nuestros/as artistas mediten sobre la figura femenina y su papel en nuestra sociedad.

“ANONIMA” porque redunda en el deseo de querer ocultar los talentos de las mujeres, relegadas durante mucho tiempo a tareas al servicio de los hombres. “ANONIMA” porque somos igual de importantes que los hombres. “ANONIMA” porque nuestro trabajo tiene el mismo valor que el ejecutado por los hombres. “ANONIMA” porque no somos invisibles. “ANONIMA” porque no somos más frágiles. “ANONIMA” porque tenemos que ser respetadas y no subyugadas.

Podríamos seguir dando razones de “ANONIMA” pero en su lugar invitamos al/a espectador/a a visitar esta exposición de variado y rico contenido donde presentamos a XXXXX artistas que han trabajado intensamente en el desarrollo de cada una de sus obras, algunas de las cuales invitan a quienes lo deseen a interactuar con la obra donde podrán aprender algo más sobre grandes mujeres desconocidas con “Invisibles”, aportar su deseo para seguir construyendo una sociedad mas justas con “Planto” o formar parte de esta maravillosa exposición con “Yo también quiero ser Frida”.

Para aquellos/as visitantes que no conozcan a los/as artistas de esta exposición, les informamos que son artistas con discapacidad psíquica o intelectual, donde destacamos con orgullo la gran capacidad que tienen de darnos esta lección sobre la igualdad de género. Artistas que al igual que la muestra “ANONIMA” también han permanecido mucho tiempo en el anonimato, pero ya no: tienen nombre, apellidos, edad, género, deseos, necesidades... y forman parte de nuestra sociedad como cada uno y cada una de nosotros y nosotras.

Esperamos que disfruten de cada una de las obras de esta exposición realizadas bajo muy diferentes puntos de vista y aprecien las grandes capacidades de nuestros/as alunmos y alumnas.

**Ana Urgoiti Guisasola**

**GORKA GUEZURAGA DELGADO (Bilbo, 1985)**
Izenburua: "Ama"
Teknika: Akrilikoa mihisean.  73 x 60 cm

Gasteizen "Alava Sarea" erakusketa ikusi zuen Guezuragak, eta ulertu zuen sarea osatzen zuten emakumeen egitekoa: sarea arduratzen zen presoen eta haien senideen ongizateaz eta senideak presoen berri izateaz. Horrela, artistak amek semealaben zaintzan egindako lana omendu nahi izan du. Horretarako, eta bere amak bera zaintzen egindako lana gogoan, umetako argazki batetik abiatu da; bertan, Guezuraga bera azaltzen da amarekin batera. Mihisean, argazki horren interpretazioa egin du.



**GORKA GUEZURAGA DELGADO (Bilbao, 1985)**
Título: "Ama"
Técnica: Acrílico sobre lienzo.  73 x 60 cm

Durante la visita a la exposición de la "Red Alava" en Vitoria,  Guezuraga supo entender el importante papel de cuidadoras que tenían las mujeres que componían la red, preocupándose del bienestar tanto de los presos como de sus familiares cuando les trasladaban las noticias sobre su situación. El artista ha querido homenajear el papel de cuidadoras que las madres han ejercido sobre sus hijos e hijas y, siendo Guezuraga consciente de los cuidados recibidos por su  madre, se ha basado en una foto donde aparece él de niño junto con su Ama para hacer su propia interpretación en este lienzo.





**ARANTZA CAMPINO VILLEGAS (Bilbo,  1964)**
Izenburua: “Autorretratua”
Teknika: Akrilikoa mihisean.  65 x 81 cm

Artziniegan, Santxotena museora bisitan, Teresa Lafraguaren lanak liluratu egin zuen Campino. Hainbat emakumeren erretratuak jasotzen ditu Lafraguaren obrak. Erretratuetako bat oinarritzat hartu, eta bere autorretratua eraiki du Campinok. Horrela, orain arteko lanetan bezala, emakumearen presentzia azpimarratzen da azken lan honetan ere.



**ARANTZA CAMPINO VILLEGAS (Bilbao,  1964)**
Título: “Autorretrato”
Técnica: Acrílico sobre lienzo. 65 x 81 cm

Durante la visita al Museo Santxotena en Artzeniega, Campino se sintió atraída por la obra realizada por la artista Teresa Lafragua con una serie de retratos femeninos, y tomando como referencia una de las imágenes decidió hacer su propio autorretrato. Con este autorretrato, la artista  reafirma la presencia femenina manifestada en otras obras anteriores.





**ESTIBALIZ ORTIZ DE LAISECA URIBE** (Bilbo, 1961)
Izenburua: “Adorea”
Teknika: Mistoa oholean. 60 x 80 cm

Laisecak Dolores Ibarruri hartu dugaitzat obra honetan, itzal handiko emakumea izan baitzen bizkaitarra. Laisecak Dolores Ibarruri emakumea erakutsi nahi izan digu, politikan izan zuen egitekotik harago. Lanean, pentsakor azaltzen da Ibarruri, bere bizitza eta bizi izandako unerik garrantzitsuenak oroitzen balego bezala. Ibarrurirekin batera, haren bost alaben eta semearen izenak agertzen dira, suz grabaturik –sei seme-alabetako lau galdu egin zituen Ibarrurik bizi izan zen artean-. Hizki larriz eta tarte zabalekin, A M A hitza agertzen zaigu. Izan ere, Ibarruriren bizitzan,ama izan izana bezain garrantzitsua da Emakume Antifaxisten taldea (Asociación de Mujeres Antifascistas, AMA) sortu izana. Ibarrurik “Pasionaria” izengoitiarekin sinatzen zituen artikuluak; horren omenez, pasiolorea ere jaso du Laisecak obran. Bukatzeko, Ibarruriren erredaktore-agiria ageri zaigu, 1934koa. Izan ere, Ibarruri “Mundo Obrero” aldizkariko erredaktorea izan zen, ezohikolanbidea garaiko emakumeentzat, are gehiago Ibarruriren jatorri umila kontuan izanda.

**ESTIBALIZ ORTIZ DE LAISECA URIBE** (Bilbao, 1961)
Título: “Coraje”
Técnica: Mixta sobre tabla. 60 x 80 cm

Obra basada en la vida de Dolores Ibarruri. Como mujer insigne vizcaína, Ortiz de Laiseca nos ha querido mostrar a la mujer que fue y no quedarse solo con el papel que tuvo en la política. Presenta el retrato de Dolores Ibarruri con aspecto meditativo, como si estuviera evocando su vida pasada y sus experiencias más importantes. Aparecen, grabados a fuego, los nombres de sus cinco hijas y de su hijo, de las cuales solo le sobrevivieron dos: Ruben y Amaia.
Segui- damente leemos A M A, en mayúsculas y separado, ya que tiene tanta importancia en nuestra protagonista el papel de madre como el de fundadora de la “Asociación de Mujeres Antifascistas”. La flor de la pasión como tributo a la firma que acompañaba sus artículos. Finalmente el carné de Dolores Ibarruri como redactora de la revista “Mundo Obrero” que data de 1934, profesión inusual en una mujer en esos años y que dota de gran valor a la figura de Dolores, más aún teniendo en cuenta su humilde procedencia.



**GORKA PEREZ MATOS (Basauri, 1999)**
Izenburua: “Sarea”
Teknika: Mistoa mihisean.  92 x106 cm

Perezek, lan honetan, Alava espioitza sarea bultzatu zuten lau emakumeek -Bittori Etxebarria, Itziar Mujika, Delia Lauroba eta Tere Verdes- egindako lana jaso du. Alava Sareak kartzelen eta erbesteko Jaurlaritzaren arteko komunikazioa ahalbidetu zuen; Frankoren erregimenaren berri ere ematen zuen astero; hainbat atxiloketa eta exekuzio ekidin zituen eta ihesaldiren bat edo beste erraztu.
Obran, 3 pieza bertikal ikusten dira: bakoitzean, kapitulu bat. Lehengo kapituluan, Tere Verdes eta Delia Lauroba agertzen dira Duesoko kartzelan preso dituzten senideei bisita egiten. Lauroba alargundu zenean, kartzelatik informazioa atera ahal izateko, Duesora sartzen jarraitu zuen okinaren kamioiko irin-zakuetan ostendurik. Bigarren kapituluan, Itziar Mujika dago, bera ere informazioa jasotzen. Mujikarekin batera, kartzelatik informazioa ateratzen zuten beste emakume batzuk ere azaltzen dira; informazioa arropa zikinen otzaretan ateratzen zuten. Hirugarrenean, Bittori Etxebarria azaltzen da. Etxebarria Baztanen bizi zen eta mugalariei dokumentazioa emateko ardura zuen, horiek Eusko Jaurlaritzara eraman zezaten. Itziar Mujikaren pasaportea ere ageri da;izan ere, Mujika kapelagilea zen eta Parisera egiten zituen joanetorrietan Frantziara informazioa eramateko aukera baitzuen.
Perezek indar handiko pieza espresionista aurkezten digu euskarri solte batean. Erredurak ere azaltzen dira euskarrian, sareak egindako lan gogorra oroituz, baina euskarria soltea da nolanahi ere, askea, eta protagonistek ere horixe amesten zuten: aske izatea.

**GORKA PEREZ MATOS (Basauri, 1999)**
Título: “Sarea”
Técnica: Mixta sobre lienzo. 92 x 106 cm

Tras la visita a la exposición de la “Red Alava”, Pérez ha realizado un importante estudio para poder mostrarnos en tres capítulos cómo las cuatro mujeres que encabezaron esta red de espionaje,Bittori Etxeberria, Itziar Mujika, Delia Lauroba y Tere Verdes, consiguieron realizar esta labor de comunicación entre las cárceles y   el Gobierno vasco en el exilio, al que también surtió semanalmente con información sobre el propio régimen de Franco e impidió detenciones, facilitó huidas y hasta evitó ejecuciones. La obra consta de tres piezas verticales donde en cada una de ellas vemos un capítulo. En el primer capítulo vemos a Tere  y Delia que visitaban a sus familiares en la cárcel de Dueso y cuando Delia quedó viuda siguió entrando en la cárcel escondida entre los sacos del camión del  panadero para sacar la información. En el segundo capítulo vemos a Itziar que recogía la información y también hace mención a la ayuda que tuvieron por parte de otras mujeres que escondían información en los cestos que sacaban de la cárcel con la ropa sucia.  En el tercer capítulo vemos a Bittori que vivía en el Baztán y entregaba la documentación a los “mugalaris” para que la llevaran al Gobierno vasco. También aparece el pasaporte de Itziar Mujika que al ser sombrerera viajaba a París y tenía la oportunidad de llevar la información a Francia.  Pérez nos presenta una pieza  expresionista con mucha fuerza sobre un soporte suelto, con quemaduras que evocan el duro trabajo de la red, pero suelto  y libre, al igual que el fin  que perseguían sus protagonistas.



**MIGUEL CORDERO GONZALEZ (Bilbo, 1964)**
Izenburua: “Arrosa baten garrasia”
Teknika: Mistoa harri-kartoian. 75 x 105 cm

Testura nabarmeneko grafitozko hondo baten gainean, Corderok emakumezko baten irudia eskaintzen digu. Hainbat planotan koloreztatua, kontraste ederra egiten du inguruko zimurtasun grisarekin. Emakumearen irudia da obra honen bizkarrezurra, eta, dudarik gabe, erabilitako kolore saturatuak hori azpimarratzen du. Corderok emakumearen indarra erakutsi nahi izan digu, eta arrosa txiki batetik irteten den garrasi ozenaren bidez irudikatu du indar hori.

**MIGUEL CORDERO GONZALEZ (Bilbao, 1964)**
Título: “El grito de una rosa”
Técnica: Mixta sobre cartón piedra. 75 x 105 cm

Sobre un fondo grafito con mucha textura, Cordero nos presenta una figura femenina construida con planos de color formando un bello contraste con la rugosidad gris que la enmarca. El color saturado con el que ha compuesto la imagen hace resaltar la figura femenina, eje central de esta exposición, en la que Cordero nos ha querido mostrar la fuerza de la mujer representándola con un fuerte grito que nace desde una pequeña rosa.



**DANIEL ESTEVES  ALONSO**
Izenburua: “Amelia Earhart”
Teknika: Akrilikoa mihisean. 80 x 60 cm

Berezko izaera du Estevesek, eta akzio-zalea da bera. Hasieratik argi zuen Amelia Earharten gaineko lan bat egin nahi zuela, emakume abenturazale horrek liluratuta baitauka. Hori dela eta, Earharten bost bidaiak irudikatu ditu Estevesek, haren ibilbideak kolore banarekin adieraziz.  Bosgarren bidaia gorriz irudikatu du, horretan desagertu baitzen Earhart. Atlantikoa pozik gurutzatzen marraztu du emakume abenturazalea. Ikusten denez, Estevesek ongi menperatzen du marrazketa.

**DANIEL ESTEVES  ALONSO**
Título: “Amelia Earhart”
Técnica: Acrílico sobre lienzo. 80 x 60 cm

Artista con personalidad muy marcada y amante de la acción, manifestó desde un primer momento hacer un trabajo sobre “Amelia Earhart” dado que le apasiona el espíritu aventurero de esta mujer.  Nos cuenta Esteves los cinco viajes que realizó Amelia, marcando sus trayectorias en diferentes colores, siendo el quinto marcado en rojo en el que desapareció. Con dominio del dibujo, el artista ha pintado a Amelia cruzando el Atlántico alegremente.



**IMANOL YEBENES POZO (Arrigorriaga, 1994)**
Izenburua: "Eulalia de Abaitua"
Teknika: Akrilikoa mihisean. 73 x 60 cm

Eulalia Abaitua ezagutzeko nahia piztu zitzaion Yébenesi. Abaitua bilbotarra bera, aitzindari izan zen Euskal Herriko argazkigintzan. Argazkietan, inguruko jende pobrea eta umila jaso zuen, batik bat. Balio handiko irudiak utzi zizkigun Abaituak eta haren bilduma Bilboko Euskal Museoan dago gordea. Yébenesek Abaitua omendu nahi izan du lan honekin, haren argazki bat abiapuntutzat hartu, eta hura mihisean jasoz.



**IMANOL YEBENES POZO (Arrigorriaga, 1994)**
Título: "Eulalia de Abaitua"
Técnica: Acrílico sobre lienzo. 73 x 60 cm

Despierta en Yébenes el interés por conocer a Eulalia de Abaitua, pionera fotógrafa bilbaína en 1900, que se interesó especialmente en retratar a las clases más pobres y humildes, dejando una colección de imágenes de gran valor que se conservan en el Museo Vasco de Bilbao. Yébenes, basándose en una de las fotografías de Eulalia ha querido rendirle homenaje a esta gran fotógrafa llevando al lienzo la imagen.





**IRENE SANTOS DE LA PRESA (Portugalete, 1990)**
Izenburua: "EZ beti da EZ"
Teknika: Akrilikoa harri-kartoian. 75 x 52 cm

Santosek genero-berdintasuna lantzeko gogoa zuen eta "Ez beti da ez" leloa islatu nahi izan du. Erabateko askatasunean eta egikera indartsuarekin, bere barne indar guztia erakusten digu Santosek, eta lortzen du mezua argi eta garbi adieraztea.

**IRENE SANTOS DE LA PRESA (Portugalete, 1990)**
Título: "NO es NO"
Técnica: Acrílico sobre cartón piedra. 75 x 52 cm

Ante la idea de trabajar sobre la igualdad de género, Santos trasladó enseguida su mensaje: "No es no", y en plena libertad ejecutó esta pieza marcada por la factura siempre vigorosa de la artista que nos muestra toda su fuerza interior cerrando el mensaje de forma rotunda.



**AINHOA GONZALEZ CEMBELLIN (Bilbo, 1995)**
Izenburua: “Unibertsalak”
Teknika: Mistoa harri-kartoian. 75 x 52 cm

Gonzalezek lan artistikoa hainbat teknika eta euskarri erabiliz egin ohi du. Pieza honetan ere, teknika mistoa darabil: collagea eta akrilikoa. Artistak gogoan du une oro emakumeak munduan duen garrantzia eta genero-berdintasuna. Duen eskuzabaltasunak mundu osoko emakumeak irudikatzera eraman du Gonzalez, erabateko batasuna aldarrikatzeko. Kolore saturatuak erabiliz, alaitasuna transmititzen du, artistak berezko duen alaitasuna.

**AINHOA GONZALEZ CEMBELLIN (Bilbao, 1995)**
Título: “Universales”
Técnica: Mixta sobre cartón piedra. 75 x 52 cm

González desarrolla  su trabajo artístico en diferentes técnicas y soportes. Nos presenta una pieza de técnica mixta: collage y acrílico.  Teniendo muy presente en su día a día la importancia de la mujer en el mundo y la igualdad de género, el carácter generoso de esta artista le ha llevado a representar a mujeres de todo el mundo, con imágenes que llaman a la unidad y colores saturados que llenan de alegría la obra al igual que lo hace siempre González con su persona.



**LUCIA VICENTE SILVA (Bilbo, 1982)**
Izenburua: “Isiltasuna”
Teknika: Akrilikoa mihisean. 81 x 65 cm

Emakumeen kontrako indarkeriak erabat kezkatzen du Vicente. Hori dela eta, obrarekin mezu garbia adierazi nahi izan du. Hartara, eskuz idatzi du mezua, garrasi lazgarri bat balitz bezala.

**LUCIA VICENTE SILVA (Bilbao, 1982)**
Título: “Silencio”
Técnica: Acrílico sobre lienzo. 81 x 65 cm

Vicente, muy preocupada por la violencia de género, ha querido pintar esta imagen de claro mensaje, en donde la misma artista ha insistido en el propio mensaje con la frase escrita de su puño y letra como si de un grito desesperado se tratara.



**SERGIO FERNANDEZ GALLASTEGI (Bilbo, 2000)**
Izenburua: “Nik ere Frida izan nahi dut”
Teknika: Argazkia luma-kartoian. 70 x 100 cm

Fernándezi  Frida Kahlo-ren gaineko jakin-mina piztu zitzaion, Marienean (Basauri), Elisa Ortega Montillaren “Kontatu gabeko historia” erakusketa ikusi zuenean. Deigarria iruditu zitzaion Frida Kahlok, artista plastiko moduan, mundu mailan lortutako arrakasta. Hori abiapuntutzat hartu, eta artista plastikoengan jarri du begirada, erabat ezezagunak izan diren eta diren emakume artistengan. Irudi honekin, Frida izan nahi duten guztien aitortza artistikoa aldarrikatzen du Fernándezek. Lanaren ildo nagusia genero-berdintasuna da. Obran, hainbat lagun azaltzen dira, Frida bera balira bezala. Hartara, artistak ikuslearen esku utzi du Polaroida, ikusleak ere aukera izan dezan, Fridarena eginez, bere buruaren argazkia egiteko, eta ondoren, argazkia paper zurian jartzeko.

**SERGIO FERNANDEZ GALLASTEGI (Bilbao, 2000)**
Título: “Yo también quiero ser Frida”
Técnica: Fotografía sobre cartón pluma. 70 x 100 cm

Al visitar la exposición  “La historia no contada” de Elisa Ortega Montilla en MARIENEA (Basauri), Fernández demostró interés en la figura de Frida Kahlo, lo que le llevó a ahondar en la vida de esta artista.  Uno de los aspectos de la vida de Frida, como artista plástica, que le pareció significativo a Fernández es el hecho de haber  obtenido un gran reconocimiento  a nivel mundial, dato en el que se basa Fernández para reivindicar la visibilidad de las mujeres artistas plásticas tan ocultas durante toda la historia e incluso actualmente.  Con esta imagen nos  muestra el deseo de reconocimiento artístico de todos y todas que deseen ser “Frida”, donde la igualdad de género es el hilo conductor de la pieza.  Fernández invita al público a retratarse como Frida, al igual que las imágenes representadas en esta pieza, utilizando la Polaroid a su disposición  e incluir la imagen en el panel en blanco.



**IGOR PLAZA TOLOSA (Bilbo, 1989)**
Izenburua: “Alava Sarea”
Teknika: Mistoa egurrezko kutxan. 30 x 19 cm-ko 3 kutxa

Plazak -langile fina eta ikasteko irrikaz beti- Elisa Ortega Montillaren “Kontatu gabeko historia” erakusketa ikusi zuen Basaurin. Erakusketaren edukiek zein Ortegak erabilitako euskarriek jakinmin handia eragin zioten Plazari.
Ondoren, “Alava Sarea” erakusketa ikusi zuen Gasteizen, eta bertan ikusitakoak Plazaren jakinmina areagotu zuen. Hori dela eta, proiektua aldatzea erabaki zuen. Euskarriak Ortegari ikasitakoaren bidetik landu ditu; edukia, Gasteizen ikasitakotik. Hortaz, triptikoan hiru irudi ageri dira: Duesoko presoak, espioitza sarea bultzatu zuten lau emakumeak, eta azkenik, ziega, zeina haiek txukundu zuten, etxekoek pentsa zezaten egoera onean zeudela

**IGOR PLAZA TOLOSA (Bilbao, 1989)**
Título: “Red Alava”
Técnica: Mixta sobre caja de madera. 3 cajas de 30 x 19 cm

Plaza, muy trabajador y con gran deseo de aprendizaje, visitó la exposición “La historia no contada” de Elisa Ortega Montilla y mostró interés tanto por el contenido de la exposición como por los soportes empleados por Ortega. Cuando visitó la exposición de la “Red Alava” en Vitoria, también suscitó interés por el contenido de la misma, por lo que le dio un giro a su proyecto y empleando los soportes a la manera de Ortega, Plaza nos presenta un tríptico en el que podemos ver a los presos del Dueso que dieron el nombre a la red, las cuatro mujeres que la lideraron y una imagen con un calabozo que ellas mismas decoraron de la manera más elegante para mostrar a sus familiares que estaban en muy buenas condiciones cuando fueron apresadas.



**LEIRE ZELAIA EIZAGIRRE (Bilbo, 1996)**
Izenburua: “FEM”
Teknika: Mistoa. 95 x 100 cm

Elisa Ortega Montillaren “Kontatu gabeko historia” erakusketa ikusten joan ginen Marieneara (Basauri). Zelaiak jakin-mina adierazi zuen FEM obragatik, eta hortik abiatuta egin du berak emakumearen interpretazioa. Izar sendo eta tinko bat irudikatu du, beltzez margotua. Erabili duen euskarria, ordea, papera bezain hauskorra den material batez eratu da; baina artistaren lanak material hauskor horri izaera gogor eta erabatekoa eman dio. Lanari gaineratu dion dirdira emakume guztiei darien dirdira da



**LEIRE ZELAIA EIZAGIRRE (Bilbao, 1996)**
Título: “FEM”
Técnica: Mixta. 95 x 100 cm

Durante la visita a la exposición “La historia no contada” de la artista Elisa Ortega Montilla en MARIENEA, Zelaia manifestó su interés por la pieza “FEM” y nos presenta su interpretación sobre la figura de la mujer. Nos representa Zelaia una estrella firme y sólida al haberla pintado en negro sobre un soporte tejido con un material tan frágil como el papel, pero el tratamiento que le ha dado la artista ha dotado al frágil material de un carácter fuerte y contundente.
El brillo con que Zelaia finaliza la obra nos muestra el resplandor que acompaña a todas las mujeres.





**MIREN SANTIAGO BILBAO (Arrigorriaga, 1997)**
Izenburua: “Ni mitologikoa”
Teknika: Mistoa. 104 x 135 cm

Ikasketa-prozesuan, emakumeak euskal mitologian izan duen garrantziaz hausnartu genuen eta galdera hau sortu zitzaigun: zergatik ez da emakumea orduan beste errespetatzen? Erantzun bila, Artziniegako Santxotena museora jo genuen, Xabier Santxotena euskal mitologiako emakumeez egiten ari den lana ezagutzeko.
Lan hori eginda eta Santiago erdi bermeotarra izanik, erakusketa honetara Bermeoko jaietako erregina ekarri nahi izan digu: Xixili. Lamina bat da Xixili, ahate oinak ditu, beraz. Kondairak dioenez, Lamiaranetik Lamerapunteko haitzetara jaisten zen Xixili beste laminekin batera, arrantzaleak erakarri eta maitemintzeko. Ondoren, Ogoñora eraman eta hantxe itotzen omen zituzten.

**MIREN SANTIAGO BILBAO (Arrigorriaga, 1997)**
Título: “Yo mitológica”
Técnica: Mixta. 104 x 135 cm

Durante el proceso de aprendizaje nos paramos a recapacitar sobre la importancia que la figura femenina tiene en la mitología vasca y nos preguntamos por qué motivo ahora no era tan respetada la mujer como entonces, motivo por el cual visitamos el museo Santxotena en Artzeniega para conocer diferentes figuras femeninas de la mitología vasca en las que trabaja el artista Xabier Santotxena. Santiago, muy arraigada a Bermeo, quiso traer a esta exposición a la reina de las fiestas de este pueblo costero: Xixili, la lamia con piés de pato de quien cuenta la leyenda que junto con las lamiñak de Lamiaren bajaban a las rocas de Lamerapunte, atraían a los pescadores enamorándoles y cuando les tenían en sus brazos, les llevaban a Ogoño y allí les ahogaban.



**TXOMIN BENEDICTO SAIZ (Bilbo, 1960)**
Izenburua: “Emakumeen aurkako indarkeriarik ez”
Teknika: Mistoa oholean. 80 x 60 cm

Emakumeen aurkako indarkeriarekin oso kontzientziatua dago Benedicto. Eta, hain zuzen ere, indarkeria hori salatzeko sortu du artelan hau, bere nahia jakinarazteko. Eskuak irudikatzeko moduak argi adierazten digu hori: STOP-GELDI! Emakumearen ikurra azaltzen da hainbat aldiz, eskuak inguratuz, horiek babestu nahian. Lana egiteko, tonu moreak erabili ditu Benedictok, horrela, sinbologia feminista azpimarratzeko; irudiak indartzeko, pirograbatuaz baliatu da.



**TXOMIN BENEDICTO SAIZ (Bilbao, 1960)**
Título: “No a la violencia contra las mujeres”.
Técnica: Mixta sobre tabla. 80 x 60 cm

Benedicto, muy concienciado con la igualdad de género, nos muestra esta creación suya contra la violencia de género.  La forma en la que representa las manos nos dice claramente: STOP – PARA!!!!, dando a conocer el deseo del artista del cese de la violencia contra las mujeres. Acompaña a la obra los símbolos feministas que protectores rodean las manos. Toda la obra realizada en tonos morados, enfatizando la simbología feminista. Termina la obra Benedicto realzando las figuras por medio del pirograbado.

**ALEX ORTEGA DE LA SERNA (Bilbo, 1981)**
Izenburua: “Emakume-esentzia”
Teknika: Akrilikoa mihisean. 60 x 73 cm

Zentzu plastiko izugarria du Ortegak. Kolore bizidun irudi batek erakarri du, zeinetan emakumea den protagonista. Obra horren interpretazioa egin du artistak, bere nahiei jarraiki. Mihisean, aberastasun kromatikoa nabaria da eta baita figuren egikera askea ere.



**ALEX ORTEGA DE LA SERNA (Bilbao, 1981)**
Título: “Esencia de mujer”
Técnica: Acrílico sobre lienzo. 60 x 73 cm

Ortega,  con un gran sentido plástico, se siente atraído por una imagen de alegres colores donde la presencia de la mujer toma protagonismo y realiza su propia  interpretación de la misma siguiendo sus deseos. La riqueza cromática que el artista ha sabido plasmar en este lienzo queda acompañada por las figuras representadas bajo una suelta factura.





**UXUE AZAOLA SANZ (Bilbo, 1996)**
Izenburua: "Ikasketa-kodea "
Teknika: Mistoa mihisean. Diptikoa: 50 x 73 cm-ko bi

Azaolak genero-berdintasuna lantzeko hainbat ekintzatan parte hartu zuen. Horien ostean eta gaian sakontzeko, zenbait irudi landu zituen berdintasuna lortzeko jarrera egoki eta desegokiak aztertu nahian. Horretarako, bi euskarri erabili ditu. Bata, gorriz pintatua; bestea, berdez. Irudiak hautatu eta gero, euskarri gorrian itsatsi ditu jarrera gaitzesgarriak; berdean, egokiak. Emaitza, oso diptiko didaktikoa, adina edozein dela ere.



**UXUE AZAOLA SANZ (Bilbao, 1996)**
Título: "Código de aprendizaje"
Técnica: Mixta sobre lienzo. Díptico: 2 de 50 x 73 cm

Azaola acudió a diferentes visitas efectuadas para estudiar la igualdad de género, tras las cuales comenzó a ahondar en el tema con diferentes imágenes que muestran tanto el incorrecto como el correcto comportamiento para alcanzar la igualdad.  Basándose en dos soportes uno pintado de rojo y otro de verde realizó una selección de imágenes para pegarlas en los soportes: las censurables en el soporte rojo y las correctas en el soporte verde. El resultado obtenido es un díptico muy didáctico para todas las edades.

**OIHANA IRAOLAGOITIA MARTINEZ (Markina, 1979)**
Izenburua: “Ikusezinak”
Teknika: Instalazioa.

Iraolagoitia erabat harritu zen jakitean, urteetan, jeniotzat gizonezkoak bakarrik hartu direla, eta hainbat emakume garrantzitsuren izenak isilean gorde direla, ezkutuan. Emakume horietako batzuk ezagutarazteko asmoz, mugikor bat osatu du Iraolagoitiak. Erdian, emakume ezezagun baten irudia azaltzen da. Haren inguruan jiraka dabiltza, zientzian nahiz artean, garrantzitsuak izan diren emakumeen argazkiak. Artistak ikuslea “nor da nor?” jolasean parte hartzera gonbidatzen du, ahaztuta izan ditugun emakume horien izenak aldarrikatzeko.

**OIHANA IRAOLAGOITIA MARTINEZ (Markina, 1979)**
Título: “Invisibles”
Técnica: Instalación.

Se sorprende Iraolagoitia al conocer la gran cantidad de mujeres insignes que han permanecido ocultas a lo largo de la historia, donde sólo han tenido cabida los “genios masculinos”. Con ánimo de dar a conocer a algunas de estas mujeres nos presenta Iraolagoitia un móvil, donde alrededor de una figura femenina anónima giran imágenes de mujeres importantes tanto en campos artísticos como científicos. La artista invita al público a participar en el juego de “¿Quién es quién?” que ayudará a sacar a la luz a algunas de estas mujeres ocultas por el polvo en el olvido.





**MARISA GONZALEZ MARTIN (Bilbo, 1955)**
**CLAUDIA AGUINAGA GUMUZIO, (Berango, 1989)**
Izenburua: “Egin planto”
Teknika: Instalazioa.

Lehengo martxoaren 8an, munduko emakumeek planto egin zuten berdintasuna aldarrikatzeko. Orduan, Gonzálezek eta Aguinagak bertan parte hartzeko gogoa adierazi ziguten. Ordutegiak egokitu, eta erabaki genuen goizeko 12:00etanBilboko plaza eliptikoan antolatu zen eserialdira joatea. Gonzálezentzat eta Aguinagarentzat esperientzia zirraragarria izan zen. Esperientzia hori erakusketa honetara zatozten guztiokin partekatu nahi izan dute. Artisten ustez, borroka-eguna izan zen martxoaren 8a, eta egun horretan bizi izandakoak hausnartzera eraman beharko gintuzke denok. Horretarako, instalazio hau aurkezten digute, eta zuen parte hartze aktiboa sustatzen. Hiru sareta dituzue bertan; bakoitzean, kolore bateko besokoak.

*Lehenengo saretan, beltzez, 2018an erraildako emakume guztien izen-abizenak daude. Ez genuke bertan beste besokorik ipini nahi; baina erakusketak dirauen artean, biktima guztiak salatzen jarraituko dugu.

*Bigarren saretan, morez, emakumeen ezinbesteko aldarrikapenak.

*Hirugarren saretan, besoko zuriak. Idatzi bertan berdintasuna erdiesteko dituzuen ideiak eta nahiak.



**MARISA GONZALEZ MARTIN (Bilbao, 1955)**
**CLAUDIA AGUINAGA GUMUZIO, (Berango, 1989)**
Título: “Planto”
Técnica: Instalación.

Cuando el pasado 8 de Marzo se convocó a todas las mujeres del mundo al planto por la lucha de la igualdad, González y Aguinaga manifestaron  su deseo de acudir a la manifestación. Adaptando los horarios más adecuados, decidimos acudir a la sentada convocada a las 12.00 h. en la Plaza Elíptica de Bilbao.  Para González y Aguinaga fue una experiencia muy importante y quisieron compartirla con todo el público que acuda a esta exposición, por lo que nos cuentan ellas mismas su propia experiencia. Entienden las artistas que se trata de una jornada de lucha y que nos tiene que llevar a todas las personas a la reflexión por lo que presentan esta instalación con tres rejillas donde colocar brazaletes de diferentes colores en cada una y donde González y Aguinaga invitan al público a participar activamente:

*En la primera rejilla: brazaletes negros con los nombres y fechas de cada mujer asesinada en 2018.  No queremos seguir aumentando el número de brazaletes negros, pero mientras dure la exposición seguiremos denunciando cada una de las víctimas.

* En la segunda rejilla: brazaletes morados con las reivindicaciones que creemos necesarias para las mujeres.

* En la tercera rejilla: brazaletes blancos donde os invitamos a que todos y todas escribáis vuestros deseos e ideas para alcanzar la igualdad de género.



GORKA GUEZURAGA DELGADO
Ama / Ama
Akrilikoa mihisean
Acrílico sobre lienzo
73 x 60 cm



ARANTZA CAMPINO VILLEGAS
Autoerretratua / Autorretrato
Akrilikoa mihisean
Acrílico sobre lienzo
65 x 81 cm



ESTIBALIZ ORTIZ DE LARSECA URIBE
Adorea / Coraje
Mistoa oholean
Mixta sobre tabla
60 x 80 cm



GORKA PEREZ MATOS
Sarea / Sarea
Mistoa mihisean
Mixta sobre lienzo
92 x 106 cm



MIGUEL CORDERO GONZALEZ
Arrosa baten garrasia
El grito de una rosa
Mistoa harri-kartoian
Mixta sobre cartón piedra
75 x 105 cm



DANIEL ESTEVES ALONSO
Amelia Earhart / Amelia Earhart
Akrilikoa mihisean
Acrílico sobre lienzo
80 x 60 cm



IMANOL YEBENES POZO
Eulalia de Abaitua / Eulalia de Abaitua
Akrilikoa mihisean
Acrílico sobre lienzo
73 x 60 cm



IRENE SANTOS DE LA PRESA
EZ beti da EZ / NO es NO
Akrilikoa harri-kartoian
Acrílico sobre cartón piedra
75 x 52 cm



AINHOA GONZALEZ CEMBELLIN
Unibertsalak / Universales
Mistoa harri-kartoian
Mixta sobre cartón piedra
75 x 52 cm



LUCIA VICENTE SIGIA
Isiltasuna / Silencio
Akrilikoa mihisean
Acrílico sobre lienzo
81 x 65 cm



SERGIO FERNANDEZ GALLASTEGI
Nik ere Frida izan nahi dut
Yo también quiero ser Frida
Argazkia luma-kartoian
Fotografía sobre cartón pluma
70 x 100 cm



IGOR PLAZA TOLOSA
Alava Sarea / Red Alava
Mistoa egurrezko kutxan
Mixta sobre caja de madera
3 cajas de 30 x 19 cm-ko 3 kutxa



LEIRE ZELAIA EIZAGIRRE
FEM / FEM
Mistoa / Mixta
95 x 100 cm



MIREN SANTIAGO BILBAO
Ni mitologikoa / Yo mitológica
Mistoa / Mixta
104 x 135 cm



TXOMIN BENEDICTO SAIZ
Emakumeen aurkako indarkeriarik ez
No a la violencia contra las mujeres
Mistoa oholean / Mixta sobre tabla
80 x 60 cm



ALEX ORTEGA DE LA SERNA
Emakume esentzia / Esencia de mujer
Akrilikoa mihisean / Acrílico sobre lienzo
60 x 73 cm



UXUE AZAOLA SANZ
Ikasketa-kodea
Código de aprendizaje
Mistoa mihisean. Diptikoa
Mixta sobre lienzo.
Díptico: 2 de 50 x 73 cm-ko bi



OIHANA IRADIAGOITIA MARTINEZ
Ikusezinak / Invisibles
Instalazioa / Instalación



MARISA GONZALEZ MARTIN
CLAUDIA AGUINAGA GURUZIO
Egin planto / Planto
Instalazioa / Instalación

**Tokia / Lugar**
BIZKAIA BATZAR NAGUSTEN ERAKUSKETA-ARETOA
SALA DE EXPOSICIONES DE LAS JUNTAS GENERALES DE BIZKAIA

Bizkaiko Batzar Nagusiak
Juntas Generales de Bizkaia
HURTADO AMEZAGA 6, BILBO

**Erakusketa / Exposición**
BILBAO FORMARTE
"ANONIMA"
2018ko azaroaren 15etik 2019ko urtarrilaren 15era
Del 15 de noviembre de 2018 al 15 de enero de 2019

**Hasierako testua / Primer texto**
Ana Urgoiti Guisasola

**Diseinu eta maketazioa / Diseño y maquetación**
Michael Haill

**Argazkiak / Fotografías**
Michael Haill

**Koordinazioa / Coordinación**
Bilbao Formarte

**Babestoa / Patrocinio**
Bizkaiko Batzar Nagusia
Juntas Generales de Bizkaia

**Imprimaketa / Impresión**
Imprenta Garcinuño
944 758 194
**Kontaktua / Contacto**
info@bilbaoformarte.com
946 076 895 / 655 601 877

**Lege gordailua / Depósito legal**
**xxxxxxxxxx**

**BIZKAIKO BATZAR NAGUSIEN ERAKUSKETA-ARETOA**
**SALA DE EXPOSICIONES DE LAS JUNTAS GENERALES DE BIZKAIA**

HURTADO DE AMEZAGA 6, BILBAO

BATZAR NAGUSIAK
JUNTAS GENERALES
BIZKAIA

formarte

